

ERAKUNDEEKIN EGITEKO EZTABAIDA TALDEAREN GIDOIA

HELBURUAK:

- 1) Erakundeetara GJHri eta ESEZri buruz zer eta nola heltzen ari den jakitea
- 2) Interpretazio-eremu horiek erakundeentzat zer diren jakitea
- 3) Beren ustez zer aukera eskaintzen dieten jakitea (lankidetzak, harremana, etab.)
- 4) Erronka sozialen proposamena alderatzea eta ñabardurak txertatzea
- 5) EHSSko erakundeek eraldaketa sozialerako eragile gisa duten zereginari buruzko gogoeta egitea

1. FASEA: ONGIETORRIA ETA ERAKUNDEEN AURKEZPENA

1. Ongietorria eta eskerrak
2. Parte-hartzaileen aurkezpena
3. Grabatzeko baimena - informatutako baimena banatuko dugu

2. FASEA: PROIEKTUAREN AURKEZPENA

1. Ikerketa-proiektuaren aurkezpen laburra (helburuak, GJH, ESEZ...)
2. Zalantzarik baduzu?

3. FASEA: GJH-REN ETA ESEZ-REN AZALPENA

1. GJHren interpretazio-eremuen azalpena
2. GJHren galderak
 - a. GJHren gaineko informaziorik baduzue? Zer iturritatik?
 - b. Interpretazio-eremu horrek zer nolako eragina du zuen ustez EHSSeko erakundeetan eta sareetan? Zer informazio ari zaizue iristen? Nola erreakzionatu duzue?
 - c. Erakunde guztien eskura dagoen eremua da?
 - d. Zer zailtasun aurreikusten dituzue zuen erakundean GJHk aplikatzeko/abian jartzeko?
3. ESEZren interpretazio-eremuen azalpena
4. Galderak
 - a. ESEZren gaineko informaziorik baduzue? Zer iturritatik?
 - b. Interpretazio-eremu horrek zer nolako eragina du zuen ustez EHSSeko erakundeetan eta sareetan?
 - c. Erakunde guztien eskura dagoen eremua da?
5. Bi interpretazio-eremuen gaineko galdera orokorrak
 - a. Zer ekarpen egin dezakete erakundeek?
 - b. Uste duzue garrantzitsua dela erreferentzia-marko komuna partekatzea?
 - c. Uste duzue erakundeen arteko lotura eta lankidetzak sustatu dezaketela?
 - d. Beste eragile sozial batzuekin lotura izateko eremu partekatuak dira?

- e. Zer beharko litzateke lotura horiek sortzeko? Zer baldintza eman beharko lirateke? Norantz bideratu beharko lirateke lotura horiek? Eragile sozial bakoitzak zer ekarpen egin dezake? Zein izango litzateke beren zeregina?

4. FASEA: GIZARTEKO ERRONKAK

1. Eraikitzen ari garen erronka sozialen esparruaren azalpen laburra
2. Galderak
 - a. Lantzen ari garen erronka sozialen eremua partekatzen duzue? Erabilgarria iruditzen zaizue EHSS zer den eta zer egiten duen azaltzeko?
 - b. Zuen erronketako batzuei erantzuten ari zaretela uste duzue?
 - c. Zer zeregin du EHSSk zuen ustez erronka sozialei erantzuteko garaian? Hartzailleekin duzuen loturarengatik, beharrei eta arazoei erantzuteko duzuen ibilbidearengatik, etab.
 - d. Zein dira erronka sozial horiei erantzuteko muga eta/edo zailtasun nagusiak? (Egiturazkoak, esku-hartzekoak, barnekoak/kanpokoak...)
 - e. Zein dira zuen indarguneak horiei dagokienez?
 - f. Uste duzue erakundeak eta EHSS oro har eraldaketa sozialerako eragileak direla? Zergatik? Zertan? Zer ekarpen egiten diozue eraldaketa sozialari?
 - g. Nola lor liteke aldaketak sortzeko gaitasun handiagoa, inpaktu handiagoa eta koordinatuagoa sortzeko erantzuna? Zer behar da?
 - h. Esparru komuna eta erreferentzia-eremu berbera partekatzeak erronka sozialei erantzutea sustatu dezake (hobeto, koordinatuago, modu eraginkorragoan...)?

6. FASEA: ITXIERA AGURRA

1. Eskerrak eta txostenaren emaitzen berri izateko gonbidapena.
2. Hurrengo urratsen azalpena